

OTE, OMEN, OHI PARTIKULA MODALAK

1. Gaur eguraldi ona egingo duela esan dute, bero handia egingo _____ du
2. Astean behin mendira joan _____ gara lagunekin.
3. Ikasle guztiak pozik daudela esan dit irakasleak; txangoa gustatu _____ zaie
4. Aita gaixo _____ dago, baina ez dut oraindik berarekin hitz egin.
5. Gaur zinemara joango _____ garen jakin nahi nuke.
6. Asier futbolaria _____ da, Realeko harrobian aritu zen.
7. Goizeko zazpitan esnatu _____ da lanera joateko.
8. Zuk esan zenuen etorriko zinela, ez zara etorri... ahaztu _____ zaizu?
9. Etxe hori sorginduta dagoela dabil jendea esaten, gauza arraroak gertatzen _____ dira.
10. Udaletxean greba _____ dago, zerbitzuak eten egin dituzte.
11. Hori egia _____ da? Ez dut sinesten!
12. Urtero oporretan Mallorcara joan _____ dira.
13. Urte amaieran kontzertu handia emango _____ dute BECen
14. Norbaitek esan dit bihar zure urtebetetzea _____ dela.
15. Egunero aita goizeko seietan altxatu _____ da.
16. Liburuak non dituzu? Galdu _____ zaizkizu?
17. Irratiak esan duenez, dibortzioa eskatu _____ dio.
18. Trumpek ez _____ du ezer egingo Gazako txikizioarekin bukatzeko.
19. Aizue, ez dut gogoratzen autoa non utzi _____ dudan aparkaturik.
20. Astelehenero bere astotxoarekin barazkiak saltzera joan _____ zen Kaxiano.
21. Esaten dute aurten oporrak lehenago emango _____ dizkigutela.
22. Nora _____ daramatzazu traste zahar horiek?
23. Lehenengo mailakoak laugarrenekoak baino okerrago portatu _____ dira gelan.

